udalsarea21
jasangarritasunerako udalerrien euskal sarea
red vasca de municipios hacia la sostenibilidad

# 2010eko Tokiko Iraunkortasun Adierazleak

## TOKIKO AGENDA 21
## LEGAZPIKO Udala

LEGAZPIKO UDALA

Agenda 21

EAEko Tokiko Agenda 21en Ebaluazio eta Jarraipenerako

V. Programa, MUGI21 tresna erabiliz

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

Dokumentu honen helburua, udalerriko **ingurumenari buruzko informazioa eskura** izatea da, horrela, udal kudeaketaren gardentasuna eta herritarren parte hartzea bultzatuz.

Txostena gure udalerriak *"Tokiko iraunkortasun politiken ebaluazio eta jarraipen programaren"* bosgarren edizioan parte hartu izanagatik eratorria da. Hau Udalsarea 21ek bere kideen artean urtero bultzatzen duen programa da, zeinetan Sareko udalerri guztiek **metodologia komun** bat jarraitzen duten.

Programa honen baitan, Udalak **gure udalerriko Tokiko Iraunkortasun Adierazleen Sistemaren (TIAS) kalkulua** egin du, eta honen datuak eta emaitzen interpretazioa hemen aurkezten dira.

Guzti hau **udal langileen parte hartzeari** esker egin ahal izan da, baita hainbat administrazio eta udalaz gaindiko eragileei esker ere, informazioa erraztu baitute guztia aurrera eramateko.

Bestalde, Ihobek, Udalsarea 21eko Idazkaritza Tekniko moduan, **kanpo laguntza teknikoa** kontratatu du. Honek, Programan parte hartu duten 100 bat udalerriei laguntza eman die eta prozesua bideratzeaz, udalaz gaindiko informazioa bildu eta errazteaz eta komunikazio eta emaitzen interpretazioaren irizpideak ezartzeaz ere arduratu da.

Informazio gehiago: **www.udalsarea21.net**

| 04(05) | Bidegorri edo bizikleta-bideen sarea |
|---|---|
| **Definizioa:** | Bizikletentzako bereziak diren herri barruko, zein herrien arteko bideen luzera |
| **Lortzeko metodoa:** | GIS, udalerriko kartografia zehatza erabiliz, honetarako tokiko laginketa edo Hirigintza zinegotzien bidez. Bizikletentzako erabilerarako azalera bezala kontsideratzen da: banandutako eta banandu gabeko herri barruko bidegorria eta herrien arteko bizikleta bideak. |
| **Unitateak:** | Km/10.000 biz |
| **Erreferentzia-balioa:** | **Iturri:** |
| **Nahi den joera:** | GEHITZEA |




**Iruzkinak:** Bidegorria 312 metro gehiagorekin osatu da: Pinturas Alfredo dendatik igogailu berrira, eta toki berdinetik Santa Cruz Egoitzara. Santa Cruz Egoitzetik pentsioaren bidegurutzera doan bidegorria ere hobetu da, baina zati honek ez du metrorik gehitzen lehendik eginda zegoelako.

## MOTA: Espezifikoa

## ADIERAZLEA: BESTELAKO ADIERAZLE BEREZIAK

| **99(04)** | **Ibilgailuak: automobilak** | | |
|---|---|---|---|
| **Definizioa:** | Ibilgailuak: automobilak | | |
| **Lortzeko metodoa:** | Datuak eskatzea TZO (Trafiko Zuzendaritza Orokorrari) | | |
| **Unitateak:** | Ibilgailu- kopurua | | |
| **Erreferentzia-balioa:** | | **Iturri:** | |
| **Nahi den joera:** | GUTXITZEA | | |




**Iruzkinak:** Legazpiko ibilgailu kopurua goraka doa urtez urte.
4.652 auto daude, baina denera 5.430 ibilgailu motordun daude, iaz baino 64 gehiago.

| **99(05)** | **Ibilgailuak: motoak** |
|---|---|
| **Definizioa:** | Ibilgailuak: motoak |
| **Lortzeko metodoa:** | Datuak eskatzea TZO (Trafiko Zuzendaritza Orokorrari) |
| **Unitateak:** | Moto-kopurua |
| **Erreferentzia-balioa:** | **Iturri:** |
| **Nahi den joera:** | GUTXITZEA |




**Iruzkinak:** Urtez urte motozikleta kopurua ere handitzen doa.

| 99(06) | Ibilgailuak: kamioiak |
|---|---|
| **Definizioa:** | Ibilgailuak: kamioiak |
| **Lortzeko metodoa:** | Datuak eskatzea TZO (Trafiko Zuzendaritza Orokorrari) |
| **Unitateak:** | Kamioi-kopurua |
| **Erreferentzia-balioa:** | **Iturri:** |
| **Nahi den joera:** | GUTXITZEA |




**Iruzkinak:** Krisialdia hasi zenean kamioi-kopurua jaitsi egin zen eta 2010ean mantendu egin da.

## GAIA: URA

## MOTA: Arrunta

## ADIERAZLEA: UR-KONTSUMOA

| 05(01) | Etxeko ur-kontsumoa biztanle eta eguneko |
|---|---|
| **Definizioa:** | Etxeko ur-kontsumoa |
| **Lortzeko metodoa:** | Datuak eskatzea konpainia hornitzaileari, eta udalerriko datuak Udal Erroldari |
| **Unitateak:** | litro/biztanle/egun |
| **Erreferentzia-balioa:** | **Iturri:** |
| **Nahi den joera:** | GUTXITZEA |




**Iruzkinak:** Ur-kontsumoa (103,4 litro) biztanleko eta eguneko, Udalsarea 21 elkartearen bataz bestekoaren (120,3 litro) azpitik mantentzen da. Gainera, aldizkako analisiek adierazten dutenez, Legazpin kalitate bikaina du edateko urak.

| 05(02) | Udalerriaren ur-eskaria, guztira (alta emandako horniketa) |
|---|---|
| **Definizioa:** | Udalerriaren ur-eskaria, guztira (altan emandako horniketa) |
| **Lortzeko metodoa:** | Sareko ur-horniketaren datuak eskatzea konpainia hornitzaileari, Partzuergoei (Gipuzkoa eta Bizkaia) eta Juntei (Araba), ur-bilketa pribatuak EJ, Nekazaritza-sektoreko uraren datuak eskatzea ureztatzaileen komunitateari |
| **Unitateak:** | m³ |
| **Erreferentzia-balioa:** | **Iturri:** |
| **Nahi den joera:** | GUTXITZEA |




**Iruzkinak:**

| 05(05) | Uraren kontsumo industriala |
|---|---|
| **Definizioa:** | Uraren kontsumo industrialaren ehunekoa |
| **Lortzeko metodoa:** | Datuak eskatzea konpainia hornitzaileari |
| **Unitateak:** | % |
| **Erreferentzia-balioa:** | **Iturri:** |
| **Nahi den joera:** | DEFINITU GABE |




| | |
|---|---|
| **Iruzkinak:** | Jarduera industrialaren jaitsiera dela eta, industriaren ur-kontsumoa nabarmen jaitsi da |

| **05(08)** | **Banaketa-sareko galerak uraren kontsumo osoaren ehuneko gisa** |
|---|---|
| **Definizioa:** | Banaketa-sareko galerak uraren kontsumo osoaren ehuneko gisa |
| **Lortzeko metodoa:** | Datuak eskatzea konpainia hornitzaileari |
| **Unitateak:** | % |
| **Erreferentzia-balioa:** | **Iturri:** |
| **Nahi den joera:** | GUTXITZEA |






**Iruzkinak:**

Urtez urte ur-galerak jaisten doaz. Kontzeptu honen barruan ur-ihesak, neurtu gabeko kontsumoak (suhiltzaileen zerbitzuak...), kontrolik gabekoak, neurgailuen akatsak... daude.
Herriko kontsumoa asko jaitsi delako, nahiz eta galera gutxiago gertatu, grafikoan agertzen den azkenengo bi urteetako ehunekoa igo egin da.
Horrez gain, Udalsarea 21 elkarteko antzeko herrietakoak (%33,6) baino askoz baxuagoa da.

## GAIA: HONDAKINAK

## MOTA: Arrunta

## ADIERAZLEA: HONDAKINEN SORRERA ETA KUDEAKETA

| 07(01) | Hiri hondakinen sorrera biztanleko eta eguneko |
|---|---|
| **Definizioa:** | Hiri-hondakinen sorkuntza biztanleko eta eguneko |
| **Lortzeko metodoa:** | Datuak eskatzea mankomunitateei (Gipuzkoa), koadrilei (Araba) eta Garbikerri (Bizkaia), eta biztanleen datuak Udal Erroldari |
| **Unitateak:** | kg/bizt./egun |
| **Erreferentzia-balioa:** | **Iturri:** |
| **Nahi den joera:** | GUTXITZEA |




**Iruzkinak:** Krisialdiak eragin duen kontsumo jaitsieraren ondorioz, azkeneko bi urteotan zabor gutxiago sortu dugu (pertsona eta eguneko 1,34 kilotik 1,19 kilora pasatuz). Udalsarea 21 elkarteko antzeko herrien portzentaje bera daukagu.

| 07(02) | Hondakinen kudeaketa: birziklapena eta gaikako bilketa | | |
|---|---|---|---|
| **Definizioa:** | Birziklatzen diren hondakinen ehunekoa | | |
| **Lortzeko metodoa:** | Datuak eskatzea mankomunitateei (Gipuzkoa), koadrileei (Araba) eta Garbikerri (Bizkaia) | | |
| **Unitateak:** | % | | |
| **Erreferentzia-balioa:** | | **Iturri:** | |
| **Nahi den joera:** | GEHITZEA | | |




**Iruzkinak:**

Adierazle honen joera positiboa da, tankera berdineko herriena bezalakoa. Euskadiko bataz bestekoa (28,3) gainditzen dugu, baina ez dugu lortu Ingurumen Esparru Programan 2010erako zehaztutako helburua (%35).
Datu positiboa: hondakin gutxiago sortu dugu eta gainera gehiago birziklatu da.

| 07(08) | Garbiguneen erabilera |
|---|---|
| **Definizioa:** | Herritarrek garbigunera urtero egiten duten sarrera kopurua 1.000 biztanleko |
| **Lortzeko metodoa:** | Kudeaketa egiten duen tokiko enteari, Mankomunitateei (Gipuzkoa), Eskualdeei (Araba), Garbiker (Bizkaia) eta Udal Errolda |
| **Unitateak:** | sarrea kopurua/1000 biztanle |
| **Erreferentzia-balioa:** | **Iturri:** |
| **Nahi den joera:** | GEHITZEA |




**Iruzkinak:** Garbigunea gero eta gehiago erabiltzen da.

## GAIA: ENERGIA

## MOTA: Arrunta

## ADIERAZLEA: ENERGIA-KONTSUMOA

| 06(10) | Energia berriztagarrien ekoizpena |
|---|---|
| **Definizioa:** | Energia berriztagarrien ekoizpena, guztira. |
| **Lortzeko metodoa:** | Datuak eskatzea EEEri (Energiaren Euskal Erakundea) |
| **Unitateak:** | tep/biz/urte |
| **Erreferentzia-balioa:** | **Iturri:** |
| **Nahi den joera:** | GEHITZEA |




**Iruzkinak:** Kiroldegian eta Gizarte-zentroan biomasako galdarak jarri dira. Horien eraginez, 2010ean herriko energia berriztagarrien ekoizpenak gora egin du. Dena den oraindik oso gutxi da sistema horien bitartez Legazpin sortzen dugun energia.

## GAIA: KLIMA ALDAKETA ETA INPAKTU OROKORRA

## MOTA: Arrunta

## ADIERAZLEA: BEROTEGI-EFEKTUA ERAGITEN DUTEN GASEN EMISIOEN INBENTARIOA

| 13(01) | Berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioak udalerrian |
|---|---|
| **Definizioa:** | Berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioak udalerrian |
| **Lortzeko metodoa:** | Energia kontsumoaren datuak konpainia hornitzaileei eskatu eta ibilgailu kopurua TZOri (Trafiko Zuzendaritza Orokorra). Udalerriko CO2 baliodideen isurien kalkulua egitek, Herraminta informatikoa erabili |
| **Unitateak:** | t CO2b |
| **Erreferentzia-balioa:** | **Iturri:** |
| **Nahi den joera:** | GUTXITZEA |




**Iruzkinak:**

Grafiko honek Legazpiko CO2-ren igorpenak erakusten ditu, industriakoak kontuan hartu gabe. Nahiz eta azkeneko urtean pixka bat jaitsi, 45.000 tona inguruan mantentzen dira

Industria kontuan hartuta, 2009an asko jaitsi zen CO2-ren igorpena Legazpin, batez ere urte horretan Sidenor enpresak bere jarduera asko murriztu zuelako.
2008ko abenduan Sidenor enpresak bertan behera utzi zuen Legazpin burdina urtzeko jarduera; “akabera” saila 2009ko maiatzean itxi zen eta “txaparena” urte bereko ekainean.

| 13(02) | Berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioak Udalean |
|---|---|
| **Definizioa:** | Berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioak Udalean |
| **Lortzeko metodoa:** | Energia kontsumoaren datuak konpainia hornitzaileei eskatu eta ibilgailu kopurua TZOri (Trafiko Zuzendaritza Orokorra). Udalerriko CO2 baliodideen isurien kalkulua egitek, Herraminta informatikoa erabili |
| **Unitateak:** | t CO2b |
| **Erreferentzia-balioa:** | **Iturri:** |
| **Nahi den joera:** | GUTXITZEA |




| | |
|---|---|
| **Iruzkinak:** | 2006 eta 2009 urteak epelagoak izan ziren eta, ondorioz, berogailurako erabili diren erregaien kontsumoari lotutako igorpenak jaitsi egin ziren nabarmen. |

## GAIA: EKONOMIA-JARDUEREN INGURUMEN KUDEAKETA

## MOTA: Arrunta

## ADIERAZLEA: INGURUMENA KUDEATZEKO SISTEMAK UDALERRIAN

| **09(01)** | **Ingurumena kudeatzeko sistemen ezartze-maila enpresa handietan eta ETEetan (ISO 14001, EMAS, Ekoscan, Iraunkortasun txostenak)** |
|---|---|
| **Definizioa:** | Ingurumena kudeatzeko sistemen ezartze-maila enpresa handietan eta ETEetan (ISO 14001, EMAS, Ekoscan, Iraunkortasun-?txostenak) |
| **Lortzeko metodoa:** | Ingurumena kudeatzeko sistemak dituzten enpresa handien eta ETEen datuak eskatu IHOBEri |
| **Unitateak:** | Ziurtagiria duten sistema kopurua |
| **Erreferentzia-balioa:** | **Iturri:** EUROPAKO ADIERAZLEA |
| **Nahi den joera:** | GEHITZEA |




**Iruzkinak:**

1999 eta 2004 urte bitartean igotzeko joera izan ondoren, Legazpin ingurumena kudeatzeko ziurtagiria duten enpresen kopurua egonkortu egin da. Dena den, Euskadiko Autonomia Erkidegoan Ekoscan ziurtagiriak dituzten 5.000 eta 15.000 arteko biztanle-kopurua duten udalerrien zerrenda osatu da eta Legazpi lehena da zerrenda horretan, berak baitu ziurtagiri-kopuru gehien.

## GAIA: UDAL ADMINISTRAZIOAREN INGURUMEN KUDEAKETA

## MOTA: Arrunta

## ADIERAZLEA: INGURUMENA KUDEATZEKO SISTEMAK UDALERRIAN

| **09(02)** | **Ingurumena kudeatzeko sistemen ezartze-maila erakunde publikoetan (ISO 14001, EMAS, Ekoscan, Iraunkortasun txostenak)** |
|---|---|
| **Definizioa:** | Ingurumena kudeatzeko sistemen ezartze-maila erakunde publikoetan (ISO 14001, EMAS, Ekoscan, Iraunkortasun-?txostenak) |
| **Lortzeko metodoa:** | Ingurumena kudeatzeko sistemak dituzten erakunde publikoen datuak eskatu IHOBEri |
| **Unitateak:** | Ziurtagiria duten sistema kopurua |
| **Erreferentzia-balioa:** | **Iturri:** EUROPAKO ADIERAZLEA |
| **Nahi den joera:** | GEHITZEA |




urtea

**Iruzkinak:** Bi Ekoscan agiri horiek Legazpiko Udalarenak dira: bulegoak eta obra-lantaldearena.

## GAIA: SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTSUMO IRAUNKORRA

## MOTA: Espezifikoa

## ADIERAZLEA: HERRITARREN SENTSIBILIZAZIOA ETA PARTE-HARTZEA

| 16(01) | Ingurumen-hezkuntzako jarduera-kopurua |
|---|---|
| **Definizioa:** | Udalerrian ingurumen-hezkuntzari buruz egindako jarduera-kopurua. |
| **Lortzeko metodoa:** | Datuak eskatzea Ingurumen-zinegotziei |
| **Unitateak:** | Jarduera-kopurua |
| **Erreferentzia-balioa:** | **Iturri:** |
| **Nahi den joera:** | GEHITZEA |




**Iruzkinak:** Ingurumen-hezkuntzaren jarduerak antolatzeari dagokionez, Udalsarea 21 udal-elkartean 5,8an dago bataz bestekoa eta Legazpin ia bikoiztu egiten dugu datu hori.

## GAIA: KOMUNIKAZIOA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA

## MOTA: Espezifikoa

## ADIERAZLEA: HERRITARREN SENTSIBILIZAZIOA ETA PARTE-HARTZEA

| 16(04) | Herritarren parte-hartze bilerak | |
|---|---|---|
| **Definizioa:** | Udal-organo iraunkorrek herritarrek parte hartzeko helburuarekin egindako bilera-kopurua. | |
| **Lortzeko metodoa:** | Datuak eskatzea Udalari | |
| **Unitateak:** | Bilera-kopurua | |
| **Erreferentzia-balioa:** | | **Iturri:** |
| **Nahi den joera:** | GEHITZEA | |




**Iruzkinak:** Udalsarea 21 udal-elkarteko antzeko herrien bilera kopurua (4,3) bikoiztu egiten du Legazpik

## GAIA: LAN MERKATUA

## MOTA: Arrunta

## ADIERAZLEA: LANGABEZIA-TASA

| 11(01) | Langabezia-tasa |
|---|---|
| **Definizioa:** | Langabezian dauden biztanle aktiboen ehunekoa |
| **Lortzeko metodoa:** | Datuak eskatzea EGAILANi, LANBIDE-ri edo EUSTATi |
| **Unitateak:** | % |
| **Erreferentzia-balioa:** | **Iturri:** |
| **Nahi den joera:** | GUTXITZEA |




**Iruzkinak:** Langabezia-tasak hiru puntu gora egin du 2008tik hona, azkeneko hamarkadan jaso ziren kopuruak nabarmen gaindituz.

| 11(02) | Emakumezkoen langabezia-tasa |
|---|---|
| **Definizioa:** | 16-64 urte bitarteko emakume kopuru totalarekiko,INEM-en izena eman duten emakume langabetuen kopurua |
| **Lortzeko metodoa:** | Datuak EGAILAN; LANBIDE edo EUSTAT-i eskatu |
| **Unitateak:** | % |
| **Erreferentzia-balioa:** | **Iturri:** |
| **Nahi den joera:** | GUTXITZEA |




**Iruzkinak:** Emakumezkoen langabezi-tasa gutxiago igo da. Berez abiapuntua gizonezkoen tasa baino altuagoa zen.

## GAIA: ONGIZATEA ETA GIZARTERATZEA

## MOTA: Arrunta

## ADIERAZLEA: POBREZIA ETA BAZTERTZE SOZIALA

| **10(01)** | **Pobrezia eta baztertze soziala** |
|---|---|
| **Definizioa:** | Oinarrizko Errenta prestazioa jasotzen duten udalerriko familien ehunekoa |
| **Lortzeko metodoa:** | Oinarrizko Errenta prestazioa jasotzen duten familien datuak eskatzea Udaleko Gizarte Zerbitzuen Sailari, eta familia-unitatearen datuak eskatzea Udalari edo EUSTATi |
| **Unitateak:** | % |
| **Erreferentzia-balioa:** | **Iturri:** |
| **Nahi den joera:** | GUTXITZEA |




**Iruzkinak:** Krisialdiaren ondorioz, azkeneko bi urteotan gora egin du. Gero eta gertuago dago Udalsarea 21 udal-elkartearen bataz bestekotik (2,1).

**10(02)** — **Pobrezia maila. Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak jasotzen dituztenak**

**Definizioa:** Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak jasotzen duten udalerriko familien ehunekoa

**Lortzeko metodoa:** Gizarte Zerbitzuei familia jasotzaileen kopurua eskatu eta EUSTAT-i familia unitate kopurua eskatu

**Unitateak:** %

**Erreferentzia-balioa:** **Iturri:**

**Nahi den joera:**




**Iruzkinak:** 2009tik aurrera kopuru horiek gora egin dute eta horiek krisialdiaren erakusle nabarmenak dira. 2010ean ez dira eskari gutxiago jaso eta ez da laguntza behar gutxiago egon baina legeak aldatu egin dira eta lehen laguntza-mota hau jasotzen zutenek bestelako laguntzak jasotzera pasatu dira (adibidez: etxebizitza-osagarriak).

## GAIA: DEMOGRAFIA

## MOTA: Espezifikoa

## ADIERAZLEA: DEMOGRAFIA

| **15(02)** | **Biztanleen zahartze-tasa** |
|---|---|
| **Definizioa:** | 65 urte edo gehiago dituzten biztanleen ehunekoa |
| **Lortzeko metodoa:** | Datuak eskatzea Udal Erroldari |
| **Unitateak:** | % |
| **Erreferentzia-balioa:** | **Iturri:** |
| **Nahi den joera:** | GUTXITZEA |




**Iruzkinak:** Adierazle honek 65 urte edo gehiago dituzten biztanleen ehunekoa neurtzen du. Goraka jarraitzen du, batazbestekoaren gainetik. 2007 urtean Udalsarea 21 udal-elkarteko antzeko herrietako batazbestekoa %17,7koa zen. Legazpin berriz %20,65 zen. Gaur egun %23,28 daukagu.